

Eremu Urriko



Hizkuntzen Zinemaldia

Kurduerazko filmea garaile

Nizamettin Ariç-entzat izan da Sari Nagusia eta Kouyaterentzat Publikoarena

Nizamettin Ariçek kurdueraz errodatutako 'Klamek ji bo Beko' filmeak irabazi du Eremuak'95eko Sari Nagusia. Publikoaren saria Dani Kouyatek banbaraz egindako 'Keita!' filmeanentzat izan da, eta Aktore Onenaren saria Wilma Kennedyrentzat, Mike Alexanderrek gaidhligez (Eskoziako gaelikoa) errodatutako filmean egindako lanarengatik.


JUAN LUIS ZABALA / ZARAUTZ

Nizamettin Ariç zuzendari kurduak kurdueraz filmatutako 'Klamek ji bo Beko' ('Kantu bat Bekorentzat') filmeanentzat izan da Eremuak'95 Eremu Urriko Hizkuntzen Zinemaldiko Sari Nagusia. Publikoaren saria Dani Kouyate zuzendari mandingak banbaraz egindako 'Keita!' lanarengatik izan da, eta Aktore Onenaren saria Wilma Kennedyrentzat, Mike Alexander zuzendari eskoziarrak gaidhligez egindako 'As an eilean' ('Uhartetik') filmean egindako lanarengatik.

Sari Nagusiari dagokion dirua —antolakuntzak berak emana— milioi bat pezetakoa da (40.000 libera inguru): 600.000 Nizamettin Ariç zuzendariarentzat eta 400.000 Margarita Woskanian ekoizlearentzat; Publikoaren saria —EGUNKARIAK emana— Mikel Anjel Lertxundik egindako eskultura da; Aktore Onenaren saria —Zarauzko Udalak emana— eskultura bat eta astebeteko egonaldia Zarautzen. Atzo iluntzean Zarauzko Modelo zinema aretoan egindako ekitaldian jaso zituzten sariak irabazleek.

Epaimahaiak sarien berri jakinaraziz plazaratutako agiriaren arabera, Koldo Anasagasti, Miguel Castelo, Paul Turner eta Sakari Toiviainen epaileek ez zuten aho batez erabaki Sari Nagusia zein filmeri eman, «aurten ikusi ditugun filmeen batez besteko kalitatea bikaina izanik zaila izan baita azken erabakira iristea».

LAU ORDUKO EZTABAIDA
«Lau ordu egon gara bilduta, etengabeko eztabaidan», adierazi dio EGUNKARIARI Koldo Anasagastik. Epaimahai-kide bakoitzak bina filme aipatu ditugu hasieran, eta bost filmetatik lau izan ditugu mahai gainean. Hortik abiatu oso zaila izan zaigu akordio batera iristea. Publikoaren sariak eta Aktore Onenaren sariak nolabaiteko oreka eman dio azken emaitzari,



Nizamettin Ariç zuzendari kurdua (erdian), Gael Brunet eta Paul Turnerrekin.

ANDER GILLENEA

azkenean hiru filme baitira sari-tuta geratu direnak». Sari Nagusia eskuratu duen filmeak «oso gai indartsu eta interesgarria du», Anasagastiren iritziz, «nahiz eta zinematografikoki beharbada ez izan beste batzuek adinako mailarik. Azkeneko

erabakian gaiari eman diogu formari baino garrantzi handiagoa».

Antzekoa zen Miguel Castelo zuzendari galegoaren iritzia ere: «Ez dago Sari Nagusia irabazi duen filmea guztiz biribila dela esaterik, tentsio dramatiko handiko uneak eta pasarte motela-

goak konbinatzen baititu. Baina nik neuk nahiago dut formalki perfektua ez izan arren, bizitza duen filmea, formalki perfektua den filme hila baino».

PALMARESA	
FILME ONENA	"KLAMEK JI BO BEKO" Zuz: Nizamettin Ariç (Kurdueraz)
PUBLIKOAREN SARIA	"KEITA" Zuz: Dani Kouyate (Banbaraz)
AKTORE ONENA	WILMA KENNEDY Filmea: "As an eilean" (Gaidhligez)

'Hegoak ebaki banizkio...'

J.L.Z. / ZARAUTZ

■ 'Hegoak ebaki banizkio' kantatu zuen Nizamettin Ariç-ek ostegunean Modelo zinema aretoan, bere filmea aurkeztean. Bere hurrengo diskoan kurduerazko bertsioa grabatuko duela ere esan zuen. Lagun asko egin dituzte Zarautzen Ariç-ek eta Christine Kernich bere emazteak. Filmearen gidioa idazten lagundu zion Kernich-ek Ariç-i, eta baita Zarautzen ezagututako adiskideekin hitz egiten ere, Ariç-ek ez baitaki ingelesez.

Kurduerazko kanta bat kanta-tzeagatik Turkiako espetxea ezagutu zuen Nizamettin Ariç kantari eta aktoreak 1979an, eta bi urte geroago, estatu kolpe militarraren ondoren agintea hartu

zutenek erbestera aldeginarazi zioten. Berlinen bizi da harrezkero, bere herriaren oinazeen berri ematen, kantuen bidez, hitzaldien bidez eta 1992an Armenian, bertako artzain eta laborari kurdukin, filmatu zuen 'Klamek ji bo Beko' filmearen bidez. Kurdueraz errodatutako filme bakarra da.

Eremuak'95eko Publikoaren Saria ez da Dani Kouyateren 'Keita!' banbarazko filmeak irabazitako lehena. Uagaduguko (Burkina Faso) FESPACO jaialdiaren aurtengo edizioan opera prima-rik onenari emandako Oumarou Ganda Saria irabazi zuen, eta Cannesko Zinemaldian Cannes Junior Saria, biak aurten bertan, aurten bertan amaitua baita filmea.

Julio Caro Barojaren izenean anaiak jasoko du gaur Bianako Printzea saria

IRUNEA

Julio Caro Barojaren izenean, Pio Caro Baroja anaiak jasoko du gaur Felipe Asturiasko Printzearen eskutik Bianako Printzea saria, Leireko monasterioan. Joan den maiatzaren 19an ezagutarazi zuen Nafarroako Kultur Kontseiluak aurtengo irabazlearen izena. Kontseiluak bizitza osoan zehar egin duen ikerketa lanagatik eman dio Julio Caro Baroja historilari eta antropologoari Bianako Printzea saria. Bi milioi pezeta jasoko ditu Caro Barojak.

Julio Caro Baroja 1914. urteko azaroaren 13an jaio zen Madrilen, Pio Barojak Berako Itzea etxea erosi eta bi urte geroago. Etxe horren bitartez, hain zuzen ere, Julio Caro Barojak Nafarroarekin izan duen harremana etengabea izan da. Bera herriari dion maitasuna askotan azaldu du Julio Caro Barojak.

Joseba Tapia

Ruper Ordoika

Bixente Martinez

hiru truku

"Mendebaleko euskal baladak"

TEATRO VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA

Ordua **21.00** Horas

Uztailak **11** Julio

SARRERAK: 1.000 pta.

SALGA:

VICTORIA EUGENIAN ETA
BILINTX MEGADENDANDonostia Udaia
Ayuntamiento de San SebastiánKULTUR
UDAL
BILBOA